

Perpauseko elementuen arabera, aditz laguntzailea **aldatu** egiten da:

Subjektua NOR kasuan badago, aditz laguntzailea **NOR** motakoa izango da.

Subjektua NOR kasuan badago, eta perpauseko hitzen bat NORI kasuan egonez gero, aditz laguntzailea **NOR-NORI** motakoa izango da.

1. Idatzi esaldiak NOR motako aditzarekin adibidean bezala.

- Egoten naiz: Ni denbora asko egoten naiz ikasten.

- a) Etorriko gara: _____
- b) Bildu zarete: _____
- c) Erori nintzen: _____
- d) Joaten dira: _____
- e) Egon ginen: _____
- f) Joan zarete: _____

2. Osatu esaldiak NOR - NORI motako aditzekin, orainaldian (gaur) eta lehenaldian (atzo). Begiratu adibidea.

- Guri kirola asko gustatzen zaigu/zitzaigun

- a) Niri koloretako margoak galdu _____
- b) Mireni hortza erori _____
- c) Zer iruditu _____ zuei filma?
- d) Guri hainbat ideia bururatu _____
- e) Haiei baloia hesiaren beste aldera joan _____
- f) Zuei erlojua galdu _____

Perpaus batean subjektua NORK kasuan badago eta hitzen bat NOR kasuan egonez gero, aditza **NOR-NORK** motakoa izango da.

1. Berridatzi esaldiak, azpimarratutako hitza eta dagokion aditza pluralean jarritz. Begiratu adibidea

- Nik behatza hautsi dut. → Nik behatzak hautsi **ditut**

a) Txakurak hezurra jan du. →

b) Guk olerkia idatzi dugu. →

c) Neskek abestia entzun dute. →

d) Zuek liburua irakurri duzue. →

e) Nik izozkia jan dut. →

f) Zuk filma ikusi duzu. →

2. Osatu esaldiak NOR/NORK motako aditz laguntzaileekin, orainaldian eta lehenaldian. Begiratu adibidea:

- Zuk haiek asko maite **dituzu/zenituen**.

a) Gurasoek ni autoz eraman **naute/ninduten**

b) Udan Irune eta biok zu hondartzan ikusi

c) Irakasleek ikasleok zoriondu

d) Nik zu okindegian topatu

e) Josunek zu asko maite

f) Zuk gu plazan ikusi

3. Jarri zenbakiak elkarrekin doazen esaldi zatiei

Mikelek aurreko egunean...	... denetarik jaten dute.
Baserri horretako txerriek...	... zuek ikusi zintuztegun
Atzo arratsaldean...	... tratatu ninduten ni
Haiek oso modu txarrean...	... lagunak eraman zituen kotxean.
Garazik denbora asko...	... ematen du etxerako lanak egiten.